



**EBAZPENA 2011KO UZTAILAREN 4koa, HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE ETA IKERKETA SAILEKO LANGILERIA KUDEATZEKO ZUZENDARIARENA. HONEN BIDEZ, BEHIN BETIKO EBAZTEN DA IKUSKARITZAKO LANPOSTUAK ZERBITZU-EGINKIZUNETAN BETETZEA.**

Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saileko Langileak kudeatzeko zuzendariak 2011ko maiatzaren 9an emandako Ebazpenaren bitartez, dei egin zen Hezkuntzako Ikuskaritzako zenbait lanpostu zerbitzu-eginkizunetan betetzeko eta ordezkoen zerrenda egiteko, Hezkuntzako Ikuskaritzan lanpostuak behin-behinean betetzeko.

Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saileko langileak Kudeatzeko zuzendariak 2011ko ekainaren 23an emandako Ebazpenaren bidez argitara eman zen Hezkuntzako Ikuskaritzako zenbait lanpostu zerbitzu-eginkizunetan betetzeko eta Hezkuntzako Ikuskaritzan lanpostuak behin-behinean betetzeko ordezkogaien zerrenda osatzeko prozesuaren behin behineko ebazpena.

Ebazpen horren bigarren, hirugarren, laugarren, seigarren eta zortzigarren oinarrietan ezarritakoaren arabera eta oinarri horietan ezartzen den batzordeak proposatuta, hau

### **EBATZI DUT**

**Lehenengoa.-** Ezetsitako erreklamazioen zerrenda argitaratzea Zerrenda hori ebazpen honen I. eranskinean azaltzen da.

**Bigarrena.-** Argitara ematea II. eranskinean adierazten diren parte-hartzailari hirugarren A oinarrian azaltzen diren Hezkuntza Ikuskaritzako lanpostuak behin betiko esleitzen zaizkiela zerbitzu-eginkizunetan 2011/12 eta 2012/13 ikasturteetarako. Zerbitzu-eginkizunak luzatzeko, egiten duten ikuskatze-jarduerak ebaluazio positiboa izan beharko du horretarako ezartzen den prozeduran.

Autonomia Erkidego honetako Hezkuntza Ikuskarrien Kidegora sartzeko hurrengo deialdiaren ebazpenarekin, lekualdatze-lehiaketari buruzko ebazpena ematen denean edo lanpostu bat legez betetzea dakarren edozein arrazoiengatik bukatuko du zerbitzu-eginkizunak. Halaber, titularra lanpostuan berriro hasten denean bukatuko du zerbitzu-eginkizunak.

2011ko irailaren 1ean hasiko da lanpostuetan lanean.

**Hirugarrena.** Argitara ematea III. eranskinean adierazten diren parte-hartzaileei hirugarren B oinarrian azaltzen diren Hezkuntza Ikuskaritzako lanpostuak behin betiko esleitzen zaizkiela zerbitzu-eginkizunetan, 2011/12 eta 2012/13 ikasturteetarako eta jakinaraztea lanpostuan hasteko lanpostuaren titularrak erretiroa hartu egin beharko duela. Zerbitzu-eginkizunak luzatzeko, egiten duten ikuskatze-jarduerak ebaluazio positiboa izan beharko du horretarako ezartzen den prozeduran.

Autonomia Erkidego honetako Hezkuntza Ikuskarrien Kidegora sartzeko hurrengo deialdiaren ebazpenarekin, lekualdatze-lehiaketari buruzko ebazpena ematen denean edo lanpostu bat legez betetzea dakarren edozein arrazoiengatik bukatuko du zerbitzu-eginkizunak

2011ko irailaren 1ean hasiko dira lanpostuetan lanean.



**Laugarrena.** Ordezkoen zerrenda argitaratzea. Zerrenda hori IV. eranskinean azaltzen da.

Ikuskaritzako lanpostuetako ordezkogaien zerrendaren indarraldia: 2011/12 eta 2012/13 ikasturteak

### **ERREKURTSOAK**

Ebazpen honen aurka gora jotzeko errekurtoa jarri ahal izango zaio Administrazio eta Zerbitzuen sailburuordeari hilabeteko epean, ebazpen hau Hezkuntzako lurralde-ordezkaritzetan argitaratzen denetik aurrera; izan ere, hori ezartzen du Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen Legearen 115.1 artikulua.

Vitoria-Gasteizen, 2011ko uztailaren 4an.

**LANGILEAK KUDEATZEKO ZUZENDARIA**

**JUAN MANUEL ARAMENDI ARTEGA**